

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### ESTATUKO BURUZAGITZA

**11415** 29/2020 Errege Lege Dekretua, irailaren 29koa, Administrazio publikoetan telelana arautzeko presako neurriena eta Osasun Sistema Nazionalako giza baliabideena, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egitekoa.

#### I

Administrazio publiko guztiek, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia dela eta, beren funtzionamendua bermatzeko lanean eta beren langileek modu ez-presentzialean ematen dituzten zerbitzu publikoak eta herritarren eta enpresen eskubideak bermatzeko lanean jarri behar izan dituzte dituzten giza baliabide eta baliabide material guztiak azken hilabeteetan.

Arau honetan bildutako neurriak administrazio publikoek normal funtzionatuko dutela ziurtatzeko dira, eta, horretarako, enplegatu publikoen lana antolatzeko eta egituratzeko beste era batzuk bultzatzen dituzte, enplegatuok agindu zaien bezala interes orokorrei ahal den ondoena erantzutekoak.

Hori dela eta, administrazio publikoetako telelanari oinarritzko araudi bat emateari eta administrazio horiek administrazio digitalera egokitzeari heldu beste aukerarik ez dago, berehala heltzekoa ere.

Osasun-krisialdiaren ustekabeak, haren larriak eta hark emandako kolpeak, bestalde, giza baliabideen arloan aparteko neurri sorta bat hartu eta Espainiako lurralde osoan Osasun Sistema Nazionala indartzera behartzen dute; horretarako, profesionalak kontratatuzko aukera gehiago eman behar zaizkie autonomia-erkidegoei. Neurri horiek indartu beharreko Osasun Sistema Nazional hori, orain, lanez gainezka dago, eta laguntzeko oso estu, eta, horregatik, neurriok onartzea premiazkoa eta ezin atzeratuzkoa da.

#### II

Telelana bai Europako esparruan eta bai Espainiako, autonomia-erkidegoetako eta tokiko esparruetan arautu izan da, Administrazioaren ohiko establezimendu eta zentroetatik kanpo egiten den urrutiko lanaren lehen modalitatetzat hartuta teknologia berrien bidez zerbitzuak emateko.

Europar Batasunaren esparruan, Telelanari buruzko Europako Esparru Akordioa izenpetu zuten 2002. urterako Europako Sindikatuen Konfederazioak (ESK), Europako Erkidegoko Industrien Batasunak (UNICE), Eskulangileen eta Enpresa Txiki eta Ertainen Europako Batasunak eta Enpresa Publikoen Europako Zentroak (CEEP); 2002ko uztailan, Europako gizarte-solaskideek izenpetu zuten, eta, 2009an, berraztertu egin zen, Europar Batasunean besteren kontura telelanean zihardutenei segurtasun handiagoa emateko asmoz.

Telelana zerbitzu publikoak ematen dituzten enpresa eta antolakundeetan lanaren antolaketa modernizatuzko baliabidez hartuta heldu zitzaion akordio horri, baita langileei lan egiteko orduan askatasun handiagoa emateko baliabidez hartuta ere.

Telelanari buruzko Europako Esparru Akordio horrek zabalduzko bidetik, eta enpresa pribatuen esparruko esperientziak ikusita, administrazio publiko batzuk araudiak hasi ziren onartzen urrutiko laneko modalitate horrentzat.

Estatuaren esparruan, ekainaren 21eko APU/1981/2006 Aginduarekin hartu ziren telelanari buruzko lehen neurriak: agindu horren bidez, ministerio-departamentuetan telelan-programa pilotuak ezartzea sustatu zen. Ondoren, *Estatuaren Administrazio Orokorrean telelan-programa pilotuak ezartzeko eskuliburua* argitaratu zen, asmo honekin batez ere: ministerio-departamentuek eta organismo publikoek eskuliburua gida gisa erabili zezaten telelan-programa pilotuak prestatzeko eta plantan ezartzeko orduan.

Urtebete geroago, 11/2007 Legea onartu zen (11/2007 Legea, ekainaren 22koa, Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzkoa), eta, haren azken

xedapenetako seigarrenean, Estatuaren Administrazio Orokorrean telelana arautzeko ahalmena eman zen (lege hori indargabetuta dago dagoeneko).

Gero, Gobernuaren eta Sindikatuen 2009ko irailaren 25eko Akordioan, 1.1 apartatuan, «Modernizazioa eta teknologia berriak» gaiari buruzkoan, bi aurreikuspen bildu zituzten telelanaz, «zerbitzu publikoen administrazio ona, kalitatekoa eta eraginkorra sustatzeko» neurri orokorraren garapen gisa: bat, administrazio publiko guztientzat; bestea, Estatuaren Administrazio Orokorrentzat.

Estatuaren Administrazio Orokorrearen eta haren Organismo Publikoen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Planak, berriz, Estatuaren Administrazio Orokor guztientzako neurri transbertsalak hartzera bultzatzea aurreikusten du 4. ardatzean, lanaldiari, kontziliazioari eta norberaren bizitzako, familia-bizitzako eta laneko bizitzako erantzukidetasunari dagokienez (plan hori Ministro Kontseiluak onartu zuen, 2015eko azaroaren 20ko Erabakiaren bidez). Zehazki, eta helburu hori lortzeko neurri gisa, «sarean eta teknologia berriak erabiliz lan egiteko saioak egingo dira Estatuaren Administrazio Orokorrearen eta haren organismo publikoen esparruan, kontziliazioa errazteko asmoz eta lanaldia hobeto antolatzeko eta arrazionalizatze bidea errazteko asmoz».

Era berean, nabarmendu beharra dago azaroaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babestu eta Eskubide Digitalak Bermatzekoak, zenbait eskubide arautzen dituela lan-esparruan gailu digitalak erabiltzearekin lotuta daudenak —hala nola negoziazio kolektiboko eskubide digitalak, intimitaterako eta lan-esparruan gailu digitalak erabiltzeko eskubidea eta deskonexio digitalerako eskubidea—, Espainiako Konstituzioaren 18.4 artikuluko aginduari jarraituz eta Espainiako, Europar Batasuneko eta nazioarteko jurisprudentzia bilduz.

Autonomien esparruan eta tokiko esparruan, hasierako programa pilotuen ondoren, 2012. urtetik, telelana arautuz joan dira beren esparruan zerbitzuak emateko.

Hala ere, administrazio publikoetan, errealitatean, oraintsu arte ez da izan gehienen hautua telelana ezartzea eta hura baliatzea. Esparru publikoan, aurtengo martxotik hasi da benetan askoz ere gehiago baliatzen, COVID-19aren krisialdi epidemiologikoak administrazio publiko guztiei antolatze eta funtzionatzeko ekarri dien muturreko eta salbuespenezko egoera dela eta.

Hainbestearinoko presakoa zen eta hain ezohikoa zen egoera, non aldi baterako konponbideak hartu behar izan baitziren bai telelanari buruzko araudiak zituzten administrazioetan eta bai —eta batez ere— halakorik ez zutenetan, pandemiaren larrialdian administrazio-jarduerak jarraitu beharra batetik eta pandemia gelditzeko indarrean zeuden osasun-neurriak bestetik uztartzeko asmoarekin.

Hala, 463/2020 Errege Dekretuaren bidez ezarritako alarma-egoeraren esparruan eta eremuan (463/2020 Errege Dekretua, martxoaren 14koa, alarma-egoera deklaritzen duena COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko), arau batzuk onartu ziren, administrazio publikoetan guztientzat telelana ezartzen zutenak, salbuespenez eta aldi baterako bazen ere.

Maiatzaren hasierako egunetatik aurrera, ordurako pandemia kontrolatuago zegoela, Normaltasun Berrira Igarotzeko Plana ezarri zen, eta horrek konfinamendu-neurriak pixkanaka arintzea eta gizarte osoa egoera berrira egokitzea ekarri zuen.

Telelana baliatzeak, alde horretatik, abantaila handiak ematen ditu, COVID-19aren zabalkundea murriztu dezaketenak. Izan ere, aukera ematen du baliabide teknologikoak erabiltzeko eta zereginak urrutitik edo birtualki betetzeko, laneko denboran lantokira bertara joan beharrik izan gabe. Krisialdi epidemiologikoan, telelana suertatu da antolatze eta jarduerari eta zerbitzu publikoei eusteko baliabide eraginkorrena, eta, aldi berean, kutsatzetik babesteko balio du.

Osasun-krisialdiaren aurretik, ikusten zen telelana normalizatze joera, baina krisialdiarekin indartu egin da joera hori, eta, are gehiago, lehentasuna ere eman zaio telelana baliatzeari, 8/2020 Errege Lege Dekretuaren bosgarren artikuluan eman zaion bezala (8/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 17koa, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurriena).

Hala, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak baliabide erabakigarriak izan dira ziurgabetasun-egoeran enplegatu publikoen lanean euste-neurriek eta murrizketek duten eragina arintzeko, eta, bide batez, oinarriak jarri dituzte zerbitzuak emateko antolaera malguago bat izateko, etorkizunean gerta daitekeen edozein egoeratarara egokitzeko moldagarriagoa dena.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina da araugintzako tresnarik egokiena telelanaren figura hori garatzeko orduan administrazio publiko guztientzat oinarri gisa balio duten erregela batzuk jartzeko. Izan ere, testu bategin hori (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua) oinarrizko arau bat da, enplegu publikoko harremanetan aplikatzen diren printzipio orokorrak ezartzen dituena eta administrazio publiko guztietako funtzionario guztientzako elementu komunak eta administrazio horien zerbitzuko langile lan-kontratudunei aplikatzen zaizkien lege-arau espezifikoak biltzen dituena.

Telelanaren figurak, lana antolatzeko oraingo premia alde batera utzita, aukera ematen du lana bestela antolatuta zerbitzu publikoak hobetzeko, enplegatu publikoen ongizatea areagotzeko, 2030 Agendaren garapen iraunkorreko helburuak errazago betetzeko eta administrazio irekiago bat eta hartan gehiago parte hartzeko bat izateko. Informazioaren teknologia berriak erabiltzea eta administrazio digitala garatzea bultzatzen du, eta horrek berekin abantailak dakarzkie bai enplegatu publikoei eta bai Administrazioari eta oro har gizarteari.

### III

Telelanaren bidez urrutitik zerbitzuak ematea arautzen da, oinarrizko arau gisa, eta, hala, informazioaren teknologia berriak erabiltzea eta administrazio digitala garatzea bultzatzen da, eta horrek berekin abantailak dakarzkie bai enplegatu publikoei eta bai Administrazioari eta oro har gizarteari. Besteak beste, nabarmendu behar da joan-etorrietan denbora gutxiago galtzen dela, ingurumenaren jasangarritasuna hobetzen dela eta garapen profesionala eta norberaren bizitza eta familia-bizitza hobeto uztartzen direla, betiere gardentasun-printzipioa, emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa eta erantzukidetasunaren printzipioa betez eta horien ondoriozko eskubideei eutsiz —hala nola intimitaterako eskubideari eta deskonexiorako eskubideari— eta arreta berezia jarriz konfidentzialtasunaren eta datuak babestearen arloko betebeharrei.

Gainera, telelanak ezin izango du ekarri kasuan kasuko lanaldia eta ordutegia ez betetzea eta datu pertsonalak babesteari buruzko araudia ez betetzea, inongo modutan ez.

Eta, aldez aurretik, lanpostuari esleitutako zereginak telelanaren bidez egin daitezkeen aztertu beharko da, dagozkion ebaluazioa eta prebentzio-plangintza egin beharko dira eta zerbitzua emateko beharrezkoak diren konpetentzia digitalei buruzko prestakuntza izan beharko da.

Nolanahi ere, telelanaren bidez zerbitzuak urrutitik ematea ez da ohikotzat hartuko. Administrazio publikoek herritarrei ematen dizkieten zerbitzuak askotarikoak direnez, eta zerbitzu horiek eman egiten direla bermatzeko, zehaztu beharra dago zerbitzuak ezin direla beti telelanaren bidez eman. Eredu bakoitzean eta administrazio eskudun bakoitzak horretarako ematen duen araudi erregulatzailan zehaztuko da modalitate berri horren bidez eman daitezkeen zerbitzuen ehunekoa, ezartzen den araubidean aurrez aurreko lan-modalitatea eta telelana konbinatzeko moduan. Hala ere, aurrez aurreko zuzeneko arreta bermatzen zaie herritarrei.

### IV

Xedea, beraz, oinarrizko arau-esparru bat eratzea da, administrazio publikoen araubide juridikoaren ikuspegitik eta, zehatzago, enplegatu publikoen eskubide eta betebeharren ikuspegitik. Esparru horrek nahikoa izan behar du administrazio publiko guztiek beren administrazio publikoetan telelana arautzen duten berezko arau-tresnak garatu ahal izan ditzaten, beren autoantolamendu-ahalak erabiliz eta, langile lan-kontratudunen kasuan, Estatuak lan-legeriaren gainean duen eskumena kontuan hartuta.

Administrazio Publikoaren Konferentzia Sektorialaren ekainaren 11ko bileran, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina aldatzeko proposamen bat egitea erabaki zen. Horretarako, Enplegu Publikoa Koordinatzeko Batzordeak hainbat bilera egin zituen.

Hortik ateratako proposamena gizarte-eragileekin ere negoziatu zen; Administrazio Publikoaren Konferentzia Sektorialak 2020ko irailaren 21eko bileran txosten bat egin zuen haren gainean, eta, ondoren, Administrazio Publikoetako Negoziazio Mahai Orokorrean akordioa eginda berretsi zen proposamena (zehazki, oinarrizko arau gisa Estatuak arautu ditzakeen lan-baldintzak negoziatzen diren negoziazio-mahai orokorra da mahai hori, betiere kontuan hartzen duena autonomia-erkidegoek funtzio publikoaren arloan dituzten eskumen eskusibo eta partekatuak baliatuz beren lurralde-eremuan erabakiak hartzen dituzten).

Administrazio publikoak eta sindikatuak erraz jarri dira ados izan dituzten elkarriketetan, eta elkarriketa horien emaitza da errege lege-dekretu honetako edukia; jarduteko modu hori, hain zuzen ere, maila anitzeko administrazio publikoetako gobernantza partekatuaren adibide eredugarria da.

Errege lege-dekretu honek 47 bis artikulua gehitzen dio Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginari, III. tituluaren V. kapituluan, lanaldiari, baimenei eta oporrei buruzkoan.

Lehenik eta behin, telelana honela definitzen da: urrutitik zerbitzuak emateko modalitate bat da, eta modalitate horretan Administrazioaren bulegoetatik kanpo gara daiteke lanpostuaren eskumen-edukia, baldin eta zerbitzuaren beharrek horretarako aukera ematen badute, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz.

Nolanahi ere, berariaz ezartzen da telelanak lana hobeto antolatzen lagundu beharko duela, helburuak identifikatuz eta helburuak betetzen diren ebaluatuz lagundu ere. Administrazio publikoen lan-modalitate bat arautzen denez eta antolamendua malgutzen era estrukturalan, balio izan behar du Administrazioak interes orokorren zerbitzura dituen helburuak hobeto lortzeko.

Hartzat baliatzea borondatezkoa izango da, baina, baliatzeko, bermatu beharko da zerbitzu publikoak ematen direla eta betiere ziurtatu beharko da zerbitzuaren beharrak betetzen direla.

Hala, zerbitzua lan-modalitate horren bidez emateko, ezartzen da berori berariaz baimendu beharko dela, irizpide objektibo batzuen arabera, eta bateragarria izango dela modalitate presentzialarekin, presentziala izango baita aurrerantzean ere lan-modalitate arrunta.

Telelanaren modalitatean lan egiten duten langileek gainerako enplegatu publikoen betebeharrak eta eskubide berberak izango dituzte, eta Administrazioak lanerako beharrezkoak diren baliabide teknologikoak eman eta mantendu beharko ditu.

Nolanahi ere, telelanaren bidezko jarduera administrazio publiko bakoitzaren arauen arabera gauzatuko da, eta gaia eremu bakoitzeko negoziazio kolektiboan sartuko da. Telelanaren araudia errege lege-dekretu honetan aurreikusitakora egokitu behar duten administrazio publikoek sei hilabeteko epea izango dute horretarako, errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik.

Errege lege-dekretu honen 2. artikuluan, aukera ematen zaie autonomia-erkidegoei eta Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalari Espainian aitortutako espezialista-titulurik ez duten pertsonak kontratatuzko, espezialitate bati dagozkion eginkizunak betetzeko bi kasutan, baldin eta dagokien gradua, lizentziatura edo diplomatura badute. Lehenik, 2019-2020ko deialdiko osasun-prestakuntza espezializatuko hautaprobak egin dituzten eta horietan gutxieneko puntuazioa gainditu arren plazarik lortu ez duten osasungintzako profesionalen kasuan. Bigarrenik, Europar Batasuneko ez den estatu batean lortutako espezialista-titulua duten osasungintzako profesionalen kasuan, baldin eta Ebaluazio Batzordeak apirilaren 16ko 459/2010 Errege Dekretuaren 8. artikuluan b), c) edo d) letretan arautzen den proposamen-txostena egin badu.

3. artikuluan, mediku eta erizainek —estatutupekoek, lan-kontratudunek eta funtzionarioek— eman beharreko zerbitzuak arautzen dira, salbuespen gisa eta aldi

baterako, COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioz, eta, aldi berean, profesionalak falta dituzten unitateetan ere jartzen da arreta, baldin eta haien jatorrizko unitateetako zerbitzua bermatuta geratzen bada.

Hala, ahalik eta profesional gehien edukitzeko, aukera eman nahi da langileak batera eta bestera atxikitzeko: ospitale barruan bertan, ospitale batetik haren eremuko lehen mailako arretako zentroetara, halako zentroetatik ospitaleetara eta behin-behineko ospitaleetara, eta beste osasun-zentro, -zerbitzu, -instituzio edo -establezimendu publiko batzuetatik beste batzuetara.

Medikuntzako edo erizaintzako lizentziatura-, gradu- edo diplomatura-titulua eskatzen den kidego edo kategorietako funtzionarioak beste laguntza-zerbitzu batzuetara atxiki ahal izango dituzte autonomia-erkidegoek, aurreko kasuetako baldintza berberetan, eta aukera hori ere errege lege-dekretu honetan arautzen da.

Era berean, errege lege-dekretuak azaroaren 21eko 44/2003 Legearen 22. artikulua aldatzen du: osasun-prestakuntza espezializatuko hautaprobetan parte hartzen duten pertsonak harremanak nahitaez baliabide elektroniko bidez izan beharko dituztela erabaki ahal izango da, dagokion urteko deialdian hala aurreikusten denean eta bertan ezartzen den moduan. Bai deialdiaren xede den kolektiboaren ezaugarriengatik eta bai egungo pandemia-egoeragatik ematen da aukera hori, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 12. artikulua babesean.

Hala, osasun-prestakuntza espezializatuko hautaprobetan parte hartzen duten pertsonak gaitasun tekniko eta profesional nahikoa eta gehiegi duten profesional-talde batekoak dira, eta gaitasun hori ere eskatu ahal izango zaie bere garaian izango duten lanbide-jarduerarako, informazioaren teknologiak erabiltzeko gaitasuna horren barnean dela. Gainera, izapide jakin batzuk aurrez aurre egin beharrean bide elektronikotik eginez gero, jende-pilaketak gertatzeko egoera gutxiago sortzen dira, eta egoera horiek saihestu egin behar dira, COVID-19aren pandemiak eragindako osasun-krisialdi honetan bereziki, eta osasungintzako profesionalen kasuan zehazki, kolektibo horri dagokionez neurririk zorrotzenak hartu behar baitira.

Aurreko guztia alde batera utzi gabe, bitarteko elektronikoak erabiltzeak hautaketa-proben izapideak arintzea ekarriko du, eta izangaiei irisgarritasuna erraztuko die. Izangaiek edozein toki eta ordutan egin ahal izango dituzte behar diren gestioak, deialdian aurreikusitako epeen barruan.

## V

Konstituzioaren 86. artikulua arabera, Gobernuak errege lege-dekretuak eman ditzake, «aparteko eta presako beharrezana» dagoenean, baldin eta xedapenok ez badute eraginik ez Estatuaren oinarriko erakundearen antolamenduan, ez Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, eginbehar eta askatasunetan, ez eta autonomia-erkidegoen araubidean eta hauteskunde-zuzenbide orokorrean ere.

Errege lege-dekretua, Konstituzioaren arabera, tresna zilegia da, baina, horretarako, Konstituzio Auzitegiak behin eta berriro eskatu bezala (6/1983 epaia, otsailaren 4koa, 5. oinarria; 11/2002 epaia, urtarrilaren 17koa, 4. oinarria; 137/2003 epaia, uztailearen 3koa, 3. oinarria; 189/2005 epaia, uztailearen 7koa, 3. oinarria; 68/2007 epaia, 10. oinarria, eta 137/2011 epaia, 7. oinarria), presako legegintza justifikatzen duen xedea egoera jakin batean laguntzea izan behar da, Gobernuaren helburuen barruan laguntzea betiere, aurreikusten zailak diren arazoengatik araudia berehala ematea eskatzen duen egoera batean —esan nahi baita ohiko bidea erabilita edo legeen izapidetze parlamentarioarako presako prozedura erabilita beharko litzatekeena baino epe laburragoan—, eta errege lege-dekretua are tresna zilegiagoa da prozedura hori zehaztea Gobernuaren esku ez dagoenean.

Halaber, errege lege-dekretu honetako neurriak onartzeko aparteko eta presako beharrezana judizio politikoaren edo egokitasun-judizioaren mendean dago, eta horiek Gobernuari dagozkio (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 61/2018, ekainaren 7koa, 4. oinarri juridikoa; 142/2014, irailaren 11koa, 3. oinarri juridikoa); erabaki horrek, zalantzarik gabe,

jarduteko lehentasun politikoak antolatu beharra dakar (Konstituzio Auzitegiaren 2019ko urtarrilaren 30eko epaia, 2208-2019 konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsua); kasu honetan, enplegu publikoaren funtzionamenduan efizientzia areagotzeko neurriak dira.

Errege lege-dekretuaren erabilera ondo fiskalizatzeko, bi alderdi aztertu behar dira Konstituzioaren ikuspegitik: batetik, Gobernuak dekretua onartzeko kontuan eduki dituen arrazoiak berariaz eta zentzuz azaldu diren ala ez (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 29/1982, maiatzaren 31koa, 3. oinarri juridikoa; 111/1983, abenduaren 2koa, 5. oinarri juridikoa; 182/1997, urriaren 20koa, 3. oinarri juridikoa; 137/2003, uztailaren 3koa, 4. oinarri juridikoa); bestetik, beharizanaren eta horri aurre egiteko hartzen den neurriaren artean ezinbestekoa den lotura dagoen ala ez (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 29/1982, maiatzaren 31koa, 3. oinarri juridikoa; 182/1997, urriaren 20koa, 3. oinarri juridikoa; 137/2003, uztailaren 3koa, 4. oinarri juridikoa).

Beharizanaren definizioari dagokionez, ez da nahitaezkoa aparteko eta presako beharizanaren definizio hori beti eta berariaz errege lege-dekretuan bertan agertzea, eta nahikoa da hainbat elementutan oinarrituta ondorioztatzea, eta hala zehaztu da. «Aparteko eta presako beharizanaren» baldintza betetzen den aztertzeko, beti batera baloratu behar dira Gobernuaren salbuespeneko lege-xedapena ematera bultzatu zuten faktore guztiak. Faktoreok, funtsean, arauaren zioen azalpenean eta araua egiteko espedientean bertan agertzen diren horiek dira (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 29/1982 epaia, maiatzaren 31koa, 4. oinarri juridikoa; 182/1997 epaia, urriaren 28koa, 4. oinarri juridikoa; 11/2002 epaia, urtarrilaren 17koa, 4. oinarri juridikoa, eta 137/2003 epaia, uztailaren 3koa, 3. oinarri juridikoa).

Presako legediari bide ematen dion baldintzaren bigarren alderdiari dagokionez, hau da, premia-egoeraren eta errege lege-dekretuan hartzen diren neurrien artean dagoen zentzuzko loturari dagokionez, erreforma bat egiturazkotzat hartzeak ez du eragozten, berez, lege-dekretuaren figura erabiltzea; izan ere —eta hau ezin egokiago dator aztertzen ari garen kasuan—, konpondu nahi den arazoa, egiturazkoa izan arren, konpontzeko aparteko eta presazko beharra duena bihur daiteke halako batean, aztergai dugun kasuan gertatu den bezala (COVID-19aren pandemiaren kolpearen ondorioz, telelana orokortu behar izan da administrazio publikoetan). Konstituzioaren arabera, errege-dekretuaren figura tresna zilegia da arazo hori tratatzeko, harira datorren aldetik eta egokia den aldetik presako legegintza justifikatzen duen xedea lortzeko, hau da, «laguntza emateko Gobernuaren helburuen barruan egoera jakin batean, aurreikusten zailak diren arrazoiengatik araudia berehala ematea eskatzen duen egoera batean», esan nahi baita ohiko bidea erabilita edo legeen izapidetze parlamentarioarako presako prozedura erabilita beharko litzatekeena baino epe laburragoan (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 31/2011 epaia, martxoaren 17koa, 4. oinarri juridikoa; 137/2011 epaia, irailaren 14koa, 6. oinarri juridikoa, eta 100/2012 epaia, maiatzaren 8koa, 8. oinarri juridikoa).

Bestalde, Osasun Sistema Nazionaleko langileak indartzeko neurriari dagokienez, lotura nabarmena dago zehaztutako premia-egoeraren eta errege lege-dekretuan hartzen diren neurrien artean; neurri horien helburua, izan ere, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondorioz Osasun Sistema Nazionalak jasaten duen presioa arintzea da, kontratatzeko aukera gehiago izateko modua emanaz autonomia-erkidegoei, ahalik eta profesional gehien izan dezaten herritarrei zerbitzu egokia emateko.

Laburbilduz, Konstituzioaren 86. artikuluan aurreikusitako aparteko eta presazko beharizana dago errege lege-dekretu honetako neurriak hartzeko, kontuan hartuta beronekin lortu nahi diren helburuak ezin direla lortu presako prozeduraren bidez lege bat izapidetuz eta beronen bidez ez dela tresna konstituzional horren gehiegizko erabilerarik edo erabilera arbitrarioerik egiten (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 61/2018, ekainaren 7koa, 4. oinarri juridikoa; 100/2012, maiatzaren 8koa, 8. oinarri juridikoa; 237/2012, abenduaren 13koa, 4. oinarri juridikoa; 39/2013, otsailaren 14koa, 5. oinarri juridikoa).

Halaber, errege lege-dekretu honek ez du eraginik edukiko Estatuaren oinarritzko erakundearen antolamenduan, ez Espainiako Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, eginbehar eta askatasunetan, ez eta autonomia-erkidegoen araubidean eta hauteskunde-zuzenbide orokorrean ere.

Errege lege-dekretu honek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluko erregulazio onaren printzipioei jarraitzen die: premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia.

Alde horretatik, honako honek premia- eta efikazia-printzipioak betetzen ditu; izan ere, ezartzen diren neurrien oinarrian interes orokorra dago, eta errege lege-dekretua da hori lortzeko tresnarik azkarrena. Errege lege-dekretua bat dator proportzionaltasun-printzipioarekin, aurrez aipatutako helburuak lortzeko behar-beharrezkoak diren arauak baizik ez baititu ezartzen. Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa betetzen du, bat baitator gainerako ordenamendu juridikoarekin. Gardentasun-printzipioari dagokionez, araua salbuetsita dago kontsulta publikoaren, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak betetzetik, zeren eta lege-dekretuak izapidetzeko eta onartzeko ez baitira aplikatu behar. Azkenik, efizientzia-printzipioari dagokionez, errege lege-dekretu honek ez die administrazio-kargarik ezartzen herritarrei.

Beraz, hartzen diren neurriek, haien izaera eta xedea ikusirik, bete egiten dituzte Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua errege lege-dekretuak onartu ahal izateko eskatzen dituen aparteko eta presako beharrezko baldintzak.

Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikulua 7. eta 18. puntuetan xedatutakoaren babesean ematen da; horiek eskumen eskusiboa ematen diote Estatuari, hurrenez hurren, lan-legeriaren arloan —horrek ez du kentzen autonomia-erkidegoetako organoak izatea hura egikaritzen dutenak— eta administrazio publikoaren araubide juridikoaren eta haien funtzionarioen estatutu-araubidearen oinarrien arloan.

2. eta 3. artikulua, berriz, Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikulua 16. eta 30. puntuen babesean ematen dira; eta puntu horiek eskumen eskusiboa ematen diote Estatuari gai hauetan, hurrenez hurren: osasunaren arloko oinarriak eta koordinazio orokorra; eta titulu akademikoak eta lanbide-tituluak eskuratu, eman eta homologatzeko baldintzak arautzea eta Konstituzioaren 27. artikulua garatzeko oinarritzko arauak ematea, botere publikoek alor horretan dituzten betebeharrak betetzen direla bermatzeko.

Horrenbestez, Espainiako Konstituzioaren 86. artikuluan jasotako baimenaz baliatuz, Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko ministroak, Ogasuneko ministroak eta Osasuneko ministroak egindako proposamenari jarraikiz, eta Ministro Kontseiluak 2020ko irailaren 29ko bileran gaia eztabaidatu ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

1. artikulua. *Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina aldatzea, zeina urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu baitzen.*

47 bis artikulua gehitzen zaio, honela gehitu ere, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginari, zeina urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu baitzen:

«47 bis artikulua. *Telelana.*

1. Telelana urrutitik zerbitzuak emateko modalitate bat da, eta modalitate horretan Administrazioaren bulegoetatik kanpo gara daiteke lanpostuaren eskumen-dukia, baldin eta zerbitzuaren beharrek horretarako aukera ematen badute, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz.

2. Zerbitzua telelanaren bidez emateko, berriaz baimendu beharko da, eta modalitate presentzialarekin bateragarria izango da. Nolanahi ere, telelanean aritzea borondatezkoa izango da eta beste modalitatara itzultzeko aukera izango da, behar bezala justifikatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik. Estatutu hau garatzeko emango diren arauen arabera emango da zerbitzua. Arau horiek negoziazio kolektiboan negoziatuko dira, dagokien eremuan, eta irizpide objektiboak ipiniko dituzte zerbitzua emateko modalitate horretan sartzeko.

Teletan lana hobeto antolatzen lagundu beharko du, helburuak identifikatuz eta helburuak betetzen diren ebaluatuz.

3. Zerbitzua teletanaren bidez ematen duten langileek eta zerbitzua modalitate presentzian ematen duten langileek estatutu honetan jasotzen diren betebeharrak eta eskubide indibidual eta kolektibo berberak izango dituzte, lan-arriskuen prebentzioari buruz aplikatzeko den araudikoak barne, zerbitzua modu presentzian emateak berekin dakartzanak izan ezik.

4. Administrazioak jarduerarako behar dituzten baliabide teknologikoak eskuratuko dizkie modalitate horretan lan egiten dutenei, eta baliabide horientzako mantentze-lana egingo du.

5. Administrazio publikoen zerbitzuko langile lan-kontratudunek, teletanari dagokionez, estatutu honetan eta berau garatzeko arauetan aurreikusitakoa bete beharko dute.»

2. artikulua. *Pertsonal fakultatiboa eta ez-fakultatiboa salbuespenezko moduan kontratatze neurriak.*

1. Salbuespen gisa eta aldi baterako, autonomia-erkidegoei eta Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalari baimena ematen zaie Espainian aitortutako espezialista-titulua oraindik ez duten gradudun, lizentziadun edo diplomadunak kontratatze, espezialitate bati dagozkion eginkizunak bete ditzaten. Honela:

a) Osasun-prestakuntza espezializatuko 2019-2020ko hautaprobak egindako edozein titulaziotako profesionalak kontratatu ahal izango dira, urriaren 6ko 1146/2006 Errege Dekretuan aurreikusitako kontratu-modalitatean, baldin eta probetan gutxienezko puntuazioa gainditu arren plazarik esleitu ez bazitzaie (osasun-zientzietako espezialistak prestatzeko egoiliarren lan-harreman berezia arautzen du errege-dekretu horrek).

Atzeritarren baldin badira, apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuaren 43. artikulua aplikatuko da, plaza hori lortu ez badute ere (errege-dekretu horren bidez, 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua onartu zen, atzeritarrek Espainian dituzten eskubideei eta askatasunei eta haien integrazio sozialari buruzkoa, abenduaren 11ko 2/2009 Lege Organikoaren bidez berriro ondu).

b) Apirilaren 16ko 459/2010 Errege Dekretuaren aplikazio-esparruan sartuta dauden Europar Batasunaz kanpoko estatuetan lortutako espezialista-titulua duten osasungintzako profesionalak kontratatu ahal izango dira (459/2010 Errege Dekretua, apirilaren 16koa, Osasun Zientzietako Espezialistaren atzerriko tituluei ondorio profesionalak aitortzeko baldintzak arautzen dituena), baldin eta 459/2010 Errege Dekretuaren 8. artikuluko b), c) edo d) letran araututako proposamen-txostena eman badie Ebaluazio Batzordeak.

Zerbitzuak emandako aldia kontuan hartuko da espezialista-tituluaren ondorio profesionalak aitortzeko.

2. Sinatzen den kontratuak jarduera asistentziala gauzatzeko aukera emango du, eta hamabi hilabetekoa izango da gehienez, baina hiru hilabete luzatu ahal izango da amaitzen den aldira.

3. artikulua. *Medikuek eta erizainek (estatutupekoek, lan-kontratudunek eta funtzionarioek) ohiz kanpoko zerbitzuak ematea.*

1. Salbuespen gisa eta aldi baterako, dagokion autonomia-erkidegoak edozein espezialitateko estatutupeko erizain eta mediku espezialistak beste espezialitate bateko asistentzia-unitateetara bidali ahal izango ditu beren ospitalean bertan, baldin eta COVID-19aren pandemiaren ondorioz unitate horietako profesionalen kopurua nahikoa ez bada eremu horietako pazienteak artatzeko, eta erizain eta mediku horien jatorrizko asistentzia-unitateetan osasun-laguntza bermatuta geratzen bada.

2. Era berean, salbuespen gisa eta aldi baterako, autonomia-erkidego bakoitzak erabaki ahal izango du ospitaleetan zerbitzuak ematen dituzten estatutupeko erizain eta mediku espezialistak beren eragin-eremuko lehen mailako arretako zentroetan zerbitzuak



ematen hastea, lehen mailako arretako medikuen eginkizunak betetzeko, baldin eta COVID-19aren pandemiaren ondorioz lehen mailako arretako mediku nahikorik ez badago, eta erizain eta mediku horien jatorrizko unitateetan osasun-arreta bermatuta geratzen bada.

3. Dagokion autonomia-erkidegoak, halaber, lehen mailako arretako erizainen, medikuen edo pediatrien kategoriako estatutupeko langileak, salbuespen gisa eta aldi baterako, beren erreferentziako ospitaleetan edo behin-behineko ospitaleetan zerbitzuak ematera bideratu ahal izango ditu, COVID-19aren pandemiak eragindako premiek hala eskatzen badute eta haien jatorrizko osasun-zentroan osasun-laguntza bermatuta geratzen bada.

4. Era berean, autonomia-erkidego bakoitzak Osasun Sistema Nazionalako edozein asistentzia-zerbitzutara bidali ahal izango ditu, destinoko probintziaren barruan, Medikuntza edo Erizaintzako Lizenziatura, Gradu edo Diplomatura titulua eskatzen zaien kidego edo kategorietako funtzionario autonomikoak, salbuespenez eta aldi baterako, baldin eta COVID-19aren pandemiaren ondorioz han mediku edo erizain nahikorik ez badago.

5. Era berean, autonomia-erkidego bakoitzak Osasun Sistema Nazionalaren edozein asistentzia-zerbitzutara bidali ahal izango ditu, destinoko probintziaren barruan, osasun-zentro, -zerbitzu, -erakunde edo -establezimendu publikoetan zerbitzuak ematen dituzten erizain edo mediku lan-kontratadunak, salbuespenez eta aldi baterako, baldin eta COVID-19aren pandemiaren ondorioz han pertsonal mediko nahikorik ez badago.

6. 1. apartatutik 5.era banan-banan aipatutako langileak giza baliabide urriak dituzten unitateetara egongo dira atxikita unitate horietan pertsonal mediko nahikorik ez dagoen bitartean, eta, gehienez ere, artikuluko indarrean dagoen bitartean, azken xedapenetako laugarrenaren arabera.

7. Langile horiek guztiak eskubidea izango dute, hala dagokienean, indarrean dagoen araudiak zerbitzuagatik ezartzen dituen kalte-ordainak jasotzeko.

8. Ceuta eta Melilla hiri autonomoen eremuan, osasun-administrazio eskudunari egokituko zaio 1. apartatutik 5.era aipatzen diren atxikipenak egitea. Atxikipen horiei ere aplikatuko zaizkie artikuluko honetako 6. eta 7. apartatuak.

Azken xedapenetako lehena. *Osasun-arloko Lanbideak Antolatzeari buruzko azaroaren 21eko 44/2003 Legea aldatzea.*

Aldatu egiten da Osasun-arloko Lanbideak Antolatzeari buruzko azaroaren 21eko 44/2003 Legearen 22. artikuluko 1. apartatua, eta honela geratuko da:

«1. Osasun-prestakuntza espezializatuan sartzeko, urteko deialdi nazional bat egingo da. Hautaprobetan parte hartzen duten pertsonak, nahitaez, bitarteko elektronikoen bidez jarri beharko dute harremanetan Administrazioarekin, aipatutako deialdi horretan hala aurreikusten denean eta bertan ezartzen den moduan, eskabideak betetzeko eta aurkezteko izapideak egiteari, dokumentazioa aurkezteari eta tasak ordaintzeari dagokienez, baita plazak esleitzeko fasean ere.»

Azken xedapenetako bigarrena. *Arauk egokitzea.*

Telelanaren araudia errege lege-dekretu honetan aurreikusitakora egokitu behar duten administrazio publikoek sei hilabeteko epea izango dute horretarako, errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik.

Azken xedapenetako hirugarrena. *Eskumen-titulua.*

1. Errege lege-dekretu honen 1. artikulua Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikulua 7. eta 18. puntuetan xedatutakoaren babesean ematen da; horiek eskumen eskusiboa ematen diote Estatuari, hurrenez hurren, lan-legeriaren arloan —horrek ez du kentzen autonomia-erkidegoetako organoak izatea hura egikaritzen dutenak— eta administrazio publikoen araubide juridikoaren eta haien funtzionarioen estatutu-araubidearen oinarrien arloan.

2. 2. eta 3. artikulua, berriz, Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikulua 16. eta 30. puntuen babesean ematen dira; eta puntu horiek eskumen eskusiboa ematen diote

Estatuari gai hauetan, hurrenez hurren: osasunaren arloko oinarriak eta koordinazio orokorra; eta titulu akademikoak eta lanbide-tituluak eskuratu, eman eta homologatzeko baldintzak arautzea eta Konstituzioaren 27. artikulua garatzeko oinarriko arauak ematea, botere publikoek alor horretan dituzten betebeharrak betetzen direla bermatzeko.

Azken xedapenetako laugarrena. *Indarreen jartzea eta indarraldia.*

1. Errege lege-dekretu hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarreen.

2. Errege lege-dekretu honen 2. eta 3. artikuluetan jasotako neurriak, hasiera batean, hamabi hilabetean aplikatuko dira, indarreen jartzen direnetik hasita, baina beste hiru hilabetean edo aldi laburrago batean eutsi ahal izango zaie indarraldia amaitzen zaien aldiro, Osasun Ministerioko titularrak hala erabakitzen badu, osasun-krisialdiaren bilakaeraren ondorioz dauden antolamendu- eta laguntza-beharren arabera.

Madriren, 2020ko irailaren 29an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,  
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN